

EGKren diseinatzaile gazteen lanpoltsan sartzeko baldintzak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2022an sortuko diren lanak antolatzeko. Lan poltsa osatuko da izena eman eta aukeratzen diren diseinatzaileekin eta, urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz.

Egin beharreko lanak

Hauak dira 2022an zehar EGK-k beharko dituen lanak diseinuaren arloan:

- EGKren lan-arloek egunerokoan eta ekitaldien bidez garatutako txostenen maketazio eta diseinua.
- Proiektu edo egitasmo zehatzak zabaltzeko irudi sinbolikoak.
- EGKren ekintzen zabalpenerako euskarri eta material grafikoak: kartelak, esku-orriak, liburuxkak...
- Kanpaina eta deialdi konkretuak egiteko ikus-entzunezko produktuak.
- Antolatutako ekitaldien laburpen bideoak.

Porfolian egindako antzeko lanak aurkeztu behar dira.

Balorazioa

Aurkezten diren proposamenen artean, aurretik egindako antzeko lanen porfolioa baloratuko da. Parte hartzen duten pertsonak edo enpresek, derrigorrez fakturatzeko gaitasuna izan behar dute.

Gainera baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz (EGA edo parekorik) lan egiteko gaitasuna. Maila altua.
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea.
- EGKren estiloa, terminologia eta izaera ezagutzea

Epeak

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere curriculumak eta porfolioa aurkeztu behar dute 2021ko urriaren 13ko eguerdiko 12.00ak baino lehen “diseinatzaile gazteak” gaiarekin komunika@egk.eus helbidera bidaliz. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren ala ez.

Informazio gehiago jakiteko, 943429767 / 688675932 telefonora deitu edo komunika@egk.eus helbidera idatzi (Mirene Gonzalez Uriarte, EGKren komunikazio teknikaria).